

EMILIA DOYAGA SARRIUGARTE (1925-2020) AMERIKETAN EUSKALDUN


Brooklyndar euskalduna

Emilia Sarriugarte Renteria New York hiriko Brooklyn auzoan jaio zen 1925eko abuztuaren 9an, eta bertan genuen hasi eta hezia. Emiliaren guraso biak bizkaitarrak ziren, aita Berrizkoa eta ama Bakiokoa. Gurasoek 1920ko hamarkadaren hasieran emigratu zuten Ameriketako Estatu Batuetara, eta Emiliatz gain beste alaba bat izan zuten, Mari. Euskal Herritik oso urrun bizi izan arren, Sarriugarte-Renteriatarren etxean, euskara zen ohiko hizkuntza, diasporako orduko euskal komunitate txiki-trinkoetan ohitura zen bezala. Halandaze, euskara izan zen Emilia eta Mariren lehenengo hizkuntza umetan.


Aita Marcos Sarriugartek, beste euskaldun askok legez, trenbide-sarean egiten zuen lan, eta giltzurrunetako infekzio batek jota hil zen, gazte-gazterik hil ere, 1930eko urtarrilaren 8an. Emiliak lau urte baino ez zituen eta ahizpa Mari sei. Senarra hil zitzaionean, familiak proposatu zion Eugeniari, alabatxoak hartuta, jaioterrira, Bizkaiko Bakioko etxera bihurtzeko. Edozelan ere, nahiz eta egoera larri eta estuan geratu, ama alargundu berriak Brooklyn-en jarritzea erabaki zuen; izan ere, XX. mendearen hasierako baserriko bizitzaren aldean, bestelakoa zen mundu berrian ezagututako bizimodua (elekttrizitatea, gasa, txorrotako ura...): “She had grown accustomed to the household conveniences of indoor plumbing and instant running water, assured electricity and natural gas”¹.

¹ Totoricagüena, Gloria (with the collaboration of Emilia Sarriugarte Doyaga and Anna M. Renteria Aguirre): *The Basques of New York: a cosmopolitan experience*, Urazandi 12, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz, 2003, 56.

Ridge, and still in 2003, he returns regularly to the same day care facility to volunteer and read to the children”⁴.



*Euskaldunen elkartasuna N. Yorken*⁵



Centro Vasco-Americano N.Y.

Lehen ikasketak egin eta gero, Emiliak hamasei urterekin bukatu zuen batxilergoa, eta, hemeretzirekin, Hunter Teacher College-n, Arteetako lizentziatura (*Bachelor of Arts*) lortu zuen. Hurrengo urratsa Columbia University-n eman zuen Arteetako masterra (*Master of Arts*) buruturik. Bide beretik, Espainiako Oviedoko unibertsitatean, *Diploma de Estudios Hispánicos* bereganatu zuen; eta, gerora, doktoregoa (Ph.D.) prestatu zuen New York University-n. Doktorego-tesia 1967. urtean defendatu zuen: *La Mujer en Los Ensayos de Unamuno*⁶, eta handik bi urtera, 1969an, *Unamuno y la mujer*⁷

⁴ *The Basques of New York...*, 56.

⁵ *La Prensa*, 1930-02-14, 7. Diru-laguntza eman zutenen zerrenda amaitzina denez, hasiera baino ez dugu ematen: Valentín Aguirre, Paulino Uzcudun, Joaquín Astoreca... (*La Prensa* egunkaria New Yorkeko erdal hiztunen hedabide nagusia zen).

⁶ Doyaga, Emilia: *La Mujer en Los Ensayos de Unamuno*, New York University, Graduate School of Arts and Science, 1967, 690 or.

⁷ Doyaga, Emilia: *Unamuno y la mujer*, Washington Irving Publishing Co., Newark-New Jersey, 1969, 232 or.

saiakera argitaratu zuen, Francisco Ayala espainiar idazle ospetsuaren hitzaurre batekin. Liburua, beren-beregi, amari opesten dio: “A mi madre/ vasca, fuerte y decidida”. Unamunoren mundutik irten gabe, 1970ean, Bilboko Erronda kaleko idazlearen *Solitaña*⁸ narrazioaren edizio berezi bat argitaratu zuen Pablo Bilbao Aristeguirekin batera.



Emiliaren gaztetako argazki bat

Irakasle modura, luzea eta oparoa izan zen Emiliaren ibilbidea: St. John’s University, Boooklyn College, York College⁹, eta, azkenik, 1973. urtean, Long Island-eko Old Westbury College¹⁰ campusera aldatu zen, Humanitateen Programan eskolak emateko. Unibertsitate campus horie-


⁸ Unamuno, Miguel: *Solitaña*, Pablo Bilbao/Emilia Doyaga (argit.), Washington Irving Publishing Co., Newark-New Jersey, 1970, 65 or.

⁹ The City University of New York (CUNY). Gaur egun, horixe omen da munduko campus-sare unibertsitario handiena. CUNY delakoak 200.000 ikasle baino gehiago ditu New Yorkeko bost auzo nagusietan barrena banatuta.

¹⁰ The State University of New York (SUNY).

tan, irakasletzan ez eze, kudeaketan eta ikerketan ere, ha-
maika zeregin eta ardura bereganatu izan zituen Emilia Do-
yagak bere ibilbide profesional luzean, kasu batzuetan ai-
tzindaria izanik.

1971n, aukeratua izan zen Harvard Unibertsitateko
Hezkuntza-Kudeaketa Institutuan (*Institute of Educational
Management*) parte hartzeko. 80 irakasle eta unibertsitate-
administratzaile izan ziren aukeratuak, euretako bederatzi
emakumeak zirelarik, eta Emiliak talde horretan egoteko
ohorea izan zuen. York College-n Humanitateetako deka-
noa (*Dean*) izan zen Emilia, eta 1975ean, Old Westbury-n
Arazo Akademikoetako lehendakari-orde izendatu zuten.
Gloria Toticagüenak esaten digunez¹¹, New York estatuko
unibertsitate-sareak (SUNY) une horretan zeuzkan 62 cam-
pusetan, Emilia izan zen holako ardura baterako hautatua
izan zen lehenengo andrazkoa. Irakasletzan eginiko ibilbi-
dea saritzeko, 1992. urtean, New York Estatuko Unibertsita-
teak (SUNY) *Distinguished Teaching Professor Emeritus*
izendatu zuen.



York College (Queens, NY City)



*Old Westbury
(Nassau C., Long Island, NY)*

¹¹ *The Basques of New York...* 149.

Joseph (Y)doyagarekin ezkontzean, AEBetan ohikoa de-
nez, Emiliak haren abizena hartu zuen. Senarra, Bizkaiko Iba-
rrangelun jaio zen eta itsas-makinista genuen lanbidez. Daki-
gunez, Bigarren Mundu Gerran, zama-ontzi asko joaten ziren,
Atlantikoan zehar, Estatu Batuetatik Britainia Handira, alia-
tuentzako hornigaiak-eta eramatera. Holako bidaia baten, Ale-
maniako urpekoek Joseph zihoan barkuan torpedoak eztan-
darazi, hondoratu, eta atxilo hartu zituzten hainbat marinel,
Afrikako mendebaldeko kostaldeko konzentrazio-esparru ba-
tera eramanez. Gerora, presoetako batzuek –euren artean Jo-
seph Doyaga zelarik– esparrutik ihes egitea lortu zuten eta Es-
tatu Batuetara itzuli ziren¹². Gerra amaitu eta handik bi urtera,
1947an, ezkondu ziren Emilia eta Joseph, New Yorken. Seme
bi izan zituzten; David eta Mark. Joseph Doyaga 1998ko apiri-
laren 28an hil zen, 83 urte zituela.

Euzko-Etxea: aterpe, bilgune...

Gurean, aitaren ahotik *Cherry Street* entzutea nahiko ohikoa
izaten zen eta guretzat halako ukitu magiko bat zeukan; izan
ere, urruneko paraje baten oihartzuna zekarren gure belarrieta-
ra, Ameriketara joandako senideen durundi halako bat... Bage-
nekien familia geneukala New York urrunean, aitaren izeko-
osabak (Miguel Sarriugarte¹³ eta haren emazte Juana) eta aitaren
lehengusu-lehengusinak (Manuel, Frank, Consolación, Luis eta
Mari). Nik neuk Manuel ezagutu nuen, Euskal Herrira lantzean
behin etortzen baitzen, eta ederto moldatzen zen euskaraz. Ne-
ba-arrebetan gazteena ere, Mari Sarriugarte, ezagutzeko aukera
izan nuen, baina kasu honetan haren etxean, Staten Island-eko

¹² Aguirre, Anna M. / San Sebastian, Koldo: *Newyorktarrek. Origen de la comunidad Vasca de Nueva York, 1880-1955*, Urazandi 30, Eusko Jaurlari-
tzaren Argitalpen Zerbitzua, Gasteiz, 2018, 131.

¹³ Miguel Sarriugarte Obieta eta gure aitita Domingo Sarriugarte Obieta
anaiak ziren; eta gure birraitita Francisco Sarriugarte Ercilla eta Emilia Doya-
garen aitita Domingo Sarriugarte Ercilla ere anaiak.

Piave Avenue-ko etxe politean. *Lapikoko* –ingelesez ere hola erabiltzen zuten– jan genuen New Yorken, Mariren neba batek maisuki prestatuta. Bidaia horretan, Emilia Doyagaren seme David ezagutzeko parada izan nuen, eta berak eman zidan aitaren lehengusinarene helbide berria, Brooklyn-etik Staten Island-era bizitzera joana baitzen.

Cherry Street-en aipamena egin dugu lerro batzuk gorago eta horrek ezinbestean garamatza han urte askoan kokatuta egon zen “Centro Vasco-Americano” delakora, Emiliaren bizitzan erreferente garrantzitsu eta kutuna izan zen Euzkal-Etxera. Baina egin dezagun historia apur bat, bizitza luze eta gorabehera askoko euskal aterpe hori apur bat ezagutzeko. New Yorkeko Euskal Etxea 1913an sortu zen, baina historia urte batzuk lehenago hasi zen, New Yorkeko euskal komunitate txikia –marinelei esker, batez ere– handitzen hasi zen-eta¹⁴. Gerora, marinel horietako batzuek lehorrean topatu zuten euren ogibidea: trenbide-sarean, bidegintzan, ostalaritzan..., komunitate trinkoago bat osotuz. Era berean, Mendebaldeko estatuetara joateko, euskaldun askok pausaldi bat egin behar izaten zuten etxe-orratzen hiri erraldoian euren destinoetara abiatu baino lehen, eta hori dela-eta, euskaldun faltarik ez zen egoten Manhattan eta albo auzoetan.

Euskal etxe bat sortzeko lehenengo pausua 1903an eman zen¹⁵, baina 1913ra arte ez zen elkarteak sortu. Zenbait egoitza izan eta gero, bultzada nagusia Cherry Street kalean eman zitzaion proiektuari, hain justu, italiar, espainiar eta euskaldun asko bizi ziren kalean. Angelo De Sappolo-k, ber-

¹⁴ “No existe una bibliografía suficiente sobre la comunidad vasca de Nueva York, más allá de los intentos de Emilia Doyaga y Gloria Totoricagüena y algunos artículos de Manu de la Sota, Jesús de Galíndez o Luis Mendieta” (Ibidem, 28).

¹⁵ Honako euskaldun hauexek batu ziren proiektu hori mamitzeko helburuarekin: Escolástico Uriona, Valentín Aguirre, Elías Aguirre, Juan Cruz Aguirre eta Toribio Altuna.

tako farmazialari italiar-amerikarrak, senide zuen aseguru-agente baten bitartez, lagundu zien euskaldunei estatutuak-eta bideratzen, eta lege-kontuez, gerora New Yorkeko alkate izatera heldu zen Fiorello LaGuardia abokatua arduratu zen. Horrela sortu zen “Centro Vasco-Americano. Sociedad de Beneficencia y Recreo” elkartea¹⁶. Handik urte batzuetara, Lower Manhattan-eko Cherry Street kaleko 42an, lau solairuko eraikin bat erosi zuten¹⁷, eta 1928ko maiatzaren 12an inauguratu zen egoitza finko berria, *en medio de un entusiasmo delirante*, orduko erdal prentsa newyorktarrean agertu zenez.



CVA, 48 Cherry Street (1928-1946)

¹⁶ Doyaga, Emilia: “History of Euzko Etxea of New York”, *First International Basque Conference in North America*, Society of Basque Studies in America, 1985, 134.

¹⁷ Emilia Doyagaren arabera, 79.000\$ ordaindu behar izan zituzten. Horretarako, %2ko interesa zuten bonoak atera zituen orduko Centro Vasco-Americanoak (Ibidem, 136).

Hamahiru izan ziren sozio fundatzaileak, eta lehenengo presidentea Escolástico Uriona busturiarra izan zen –Emilia Doyagaren ustez, taldeko gidari, eta intelektuala¹⁸–. Hasierako estatutuen arabera, Euskal Herrian jaiotako gizonezkoek baino ez zeukaten kide izateko eskubidea. Gerora, Emiliak beren-beregi kritikatu zuen estatutuetako artikulua hori¹⁹. 1946an, urbanismo-aldaketak zirela medio, eraikin asko eraitsi ziren Lower Manhattan-en –Euskal Etxea barne–, eta 1946ko San Inazio egunez itxi zituen ate-leihoak Cherry Streeteko euskal aterpe mitikoak. Hurrengo urteetan, hiruzpalau egoitza-aldaketa egin eta gero²⁰, 1973an, elkarteak egoitza berri bat erosi zuen Brooklyn-eko Greenpoint auzoko Eckford kalean, eta 1975eko ekainaren 14an zabaldu zen gaur arte iraun duen Euzko-Etxea²¹.

Bere bizitza luzean, esan dezakegu Emilia Doyaga ezinbesteko erreferentea izan dela Euzko-Etxean, baita New Yorkeko euskal komunitatean ere. Arlo askotako betebeharrak eta ardurak bereganatu izan zituen, eta gauza txikietan zein munta eta garrantzi handikoetan, Emiliaren partaidetza eta lanerako kemena nabari-nabaria izaten zen: dantza-taldeak, euskarazko eskolak, Aberri Eguna, Euskararen Nazioarteko Eguna, Korrika... Gloria Totoricagüenak, *The Basques of New York: a cosmopolitan experience* liburuarren “Eskaintza”-n, dioskunez, bai Anna Aguirrek, bai Emilia

¹⁸ Ibidem, 133.

¹⁹ “Emilia Doyaga señala que *más fascinante que el aspecto físico del edificio es la sensación que produce la lectura de los Estatutos. No solo por el lenguaje sino por la descripción detallada de lo que preocupa. Solo hombres, nacidos en las Provincias vascas, no mujeres, pueden ser miembros. Si no es nativo, debería probarse que el padre (no la madre) era vasco*” (*Newyorktarrak...*, 158).

²⁰ Tamalez, lehenengo aldaketan, badirudi dokumentu eta agiri asko galdu egin zirela betiko.

²¹ 1980an, Henry Arana lehendakari zela, New Yorkeko “Centro Vasco-Americano” elkarteak gaur egun daukan izena hartu zuen: *Euzko-Etxea*.

Doyagak euren onena eman izan zuten New Yorkeko euskal komunitatearen alde:

“I present this book in memory of Marcus and Eugenia Renteria Sarriugarte, and their extraordinary daughter Emilia, and in memory of Andoni and Irene Renteria Aguirre, and their remarkable daughter Anna. Eskerrik asko to Emilia and Anna who have devoted their lives’ works to ensuring that there is a New York Basque community, one which could very well redefine the concept of *Basque Center*, and reinvent the meaning of *Basqueness*”²².

Izan ere, euskalduntasunaren aldeko garra barru-barruan zeraman Emilia Doyagak. Horren guztiaren adibide ezin ego-kiagoa dateke Julen Abio AEBetako ABC telebista-kateko erre-gidore ezagunaren testigantza:

“I remember Emilia Doyaga because we always walked past her mother’s house on the way to church. She really saw the hunger I had for being Basque; I was missing that so much. And she took me to the library on 42nd street and showed me the number of books they had on Basque things. It was like I had found a treasure”²³.

Esanguratsua, benetan, 11 urte zituela, Bakiotik New Yorkera heldu zen Abio jaunaren pentsamendua, Emiliak euskal munduari eta euskalduntasunari buruzko liburu-pila handi hura erakustean: *Iruditu zitzaidan altxor bat topatu nuela!* Aurkikuntzaren ederra! Ezusteren handia! Non? eta Manhattan-en bertan!

Euskal Etxeetan emakumeek egindako lan eta aportazioak baloratzeko orduan, Emiliak behin baino gehiagotan salatu izan zuen, orokorrean, kontu horrekiko zekusan sentsibilitate-falta. Emakumeak Euskal Etxeetan langile isilak izan direla diosku, eta, gutxitan aipatu izan dela haien aportazio balio-

²² *The Basques of New York...*, 21.

²³ *Ibidem*, 257.

tsua Amerikako Euskal Etxeei buruzko ikerlanetan. Zera ere gehitzen du, New Yorkeko Euzko-Etxea gogoan duela: “Today the group of women who call themselves *Andrak* (women), organize, prepare and execute all major functions for Euzko Etxea”²⁴. Gorago, Lily Aguirre anderea aipatu dugu, eta interesgarri deritzogu haren komentario ironiaz beteriko bat hona ekartzeari, ezin argiago adierazten baitu Euzko-Etxeari emakumeek opetsitako lan eskeraga:

“Name the people that worked the most at the Centro Vasco? Well, let’s see, the men ran the meetings, but you want the workers? Okay, Eugenia Fernandez, Eva Fernandez Fradua, Juana Aizpurua, Josefa Lezamiz Aguirre, Anna Betanzos Madariaga, Genoveva Orbe, Eufemia Urrutia, Irene Renteria Aguirre, Frances Bilbao Astoreca, Mary Altuna Toja, Eugenia Renteria Sarriugarte, Emily Doyaga, Margie Abadia, Teodora Abad, Alys Mason Viña, I can’t remember when she started, “Conchi” [María Concepción Echevarria] Elordi Amesti, Juana Orbe Sarriugarte, Pilar Gorostiola Aspiazu, María Luz Echevarria Elordi Landaburu, Aurora Olaso Arana, the Aberasturis, all of them, and I guess me. Oh! I forget, I’m not good with names anymore (Lily Aguirre Fradua)”²⁵.

Ohiko ospakizunetatik aparte, euskal dantzak, euskal musika... oso arlo bateratzaileak izan dira beti New Yorkeko Euzko-Etxean, baina Jon Oñatibia oiartzuarra Venezuelatik AEBetara heltzen denean²⁶ –1948ko uztailean sartu zen Euzko

²⁴ “History of Euzko Etxea of New York”, 139. “Andrak” (*The Ladies Auxiliary*) izeneko taldea 1966an sortu zen Euzko-Etxearen baitan. Zelanbaiteko autonomia izan zuen, baita ospakizun eta ekimen propioak ere; baina, 1990ean, estatutuak aldatu zirenean, eta andrazkoei gizezkoen eskubide eta betebeharrak aitortu zitzaizkienean, taldeak 25 urteko ibilbideari amaiera ematea erabaki zuen. Gazteek ere izan zuten euren talde propioa, “Juventud Vasca” (*Basque Youth*) izeneko, behin baino gehiagotan talka egin zuena Euzko-Etxeko Zuzendaritzarekin.

²⁵ *The Basques of New York...*, 97.

²⁶ Oñatibiaren asmo nagusia musika-ikasketekin jarraitzea zen, eta New Yorkeko College of Music-en organo-, konposizio- eta zuzendari-ikasketak

Etxean–, haren dinamismoari esker, areagotu egingo dira dantza eta musikaren inguruko ekimenak²⁷. Asteburuetan, Valentín Aguirrereren Jai-Alai jatetxean²⁸ eta Euzko-Etxean egoten zen Oñatibia txistua eta pianoa jotzen, eta euskal dantzak irakasten. Kontua da, kantari eta organo-jole ere jarduten zuela, bai kristau eleiza baten, baita sinagoga judu baten ere. Hori dela-eta, ezaupidea egin zuen enpresa-gizon judu batekin, eta honek proposamena egin zion euskal talde bat sortzeko euskal musika, abestiak eta dantzak erakusteko Ameriketara zehar. Oñatibiak behar zituen musikari, abeslari eta dantzariak aukeratu zituen, eta holaxe sortu zen “Euzkadi” taldea eta ikuskizuna²⁹. Lau dantzari (neska bi eta mutil bi) behar zituen Oñatibiak euskal dantzak erakusteko eta eurentariko bat Emilia Doyaga izan zen. Dantzari aparta izan behar zuen Emiliak, kontuan harturik, laukoteko bi dantzari Olaeta Ballet Taldekoak zirela, beren-beregi Euskal Herritik New Yorkera joandakoak proiektuan parte hartzeko. Laugarrena, Jon Oñatibia-


egin zituen. 1956tik 1963ra Eusko Jaurlaritzaren delegatua izan zen New Yorkeko delegazioan, Jose Antonio Agirre lehendakariak hala eskatuta.

²⁷ Emilia Doyagaren berbak dira hurrengoak: “De pronto, durante aquellos años inseguros, surgió una figura como la de Juan Oñatibia que enseñó bailes, canciones y música a todo aquel que estuviese interesado” (*New-yorktarrak...*, 221). Oraingo Euzko-Etxeko liburutegiak (307 Eckford Street, Brooklyn), haren omenez, “Jon Oñatibia Liburutegia” izena dauka.

²⁸ Jai-Alai jatetxe horretan zeukan bere egoitza ofiziala *Argia* aldizkariak (1946-48). Aldizkaria Caracasen sortu zen, euskara hutsean argitaratzen zen eta zuzendariak Andoni Arozena eta Jon Oñatibia ziren. Oñatibiak, New Yorkera aldatzean, bertara eraman zuen aldizkaria, eta bosgarren zenbakitik aurrera Manhattan-en argitaratu zen. New Yorken hamaika zenbaki argitaratu ziren (5-15).

²⁹ “*Euzkadi* izeneko ikuskizun paregabea ere jarri zuen martxan. Euskal bizimoduaren antzerki handi bat zen. Osagai askoz hornituriko ikuskizun ederra: abestiak, dantzak, txistua, txalaparta... koreografia ikusgarria zuen antzerki aparta, euskal musika eta euskal dantzez osaturikoa. Ikuskizun honenkin goitik behera eta behetik gora, birritan eman zien jira Ameriketako Estatu Batuei” (Antton Kazabon: *Jon Oñatibia (1911-1979)*, Bidegileak, E. Jaurlaritzako Argitarapen Zerbitzua, Gasteiz, 2002, 13).

ren anaia Manuel zen. 1951-1952 urteetan lehenengo itzuli handia egin zuen konpainiak Estatu Batuak, Kanada, Kuba eta Puerto Rico bisitatuz³⁰. Emiliak esaten zuenez, ikaragarritzko esperientzia pertsonala izan zen: alde batetik, arrakastatsua ez eze, hunkigarria ere izan zelako bizi izan zuena; eta, bestetik, berarentzat New Yorketik kanpoko lehen irteera zelako.



*Emilia Doyagak Nelson Rockefeller-i bidalitako gutuna*³¹

³⁰ Txango horri buruzko anekdota zenbait kontatzen ditu Emiliak *The Basques of New York...* liburuan, 163-164.

³¹ <https://guernica.museoreinasofia.es/documento/carta-de-emilia-doyaga-nelson-rockefeller>. Dokumentua Rockefeller Archive Center-en baitakoa da.

Langile nekaezina, ekintzaile aparta

Euskal Herria eta, batez ere, Gernika gogoan dituela, 1977ko maiatzaren 4an, Old Westbury College bere orduko campusetik Emiliak eskutitz bat igorri zion Nelson Rockefeller-i, New York estatuko orduko gobernadoreari, Picassoren *Guernica* obraren inguruan proposamen bat egiteko. Eskutitzean, Emiliak eskaera bat luzatu zion Nelson Rockefeller-i, hots, honek zeukan *Guernica* obraren erreplika –Picassori berari enkargatutako tapiz bat– Gernika herriari opesteko edota maileguan uzteko, obra originala Madrilgo El Prado museoan behin betiko instalatzeko erabakia hartuta zegoen-eta.

Emiliak uste zuen, eta hala ziotson gerora AEBetako presidente-orde izan zenari, haren moduko agintari entzutetsu batek, holako keinu bat eginda, eupada handi bat emango ziokeela Espainiar Estatuan erne berri zen bide demokratikoari; eta, bide batez, Gernika herriak pairatutako sufri-mendua arintzeko ere balio izango zukeela. Eskutitzarekin batera, Gernikako alkate Gervasio Guezuragaren idatzi baten itzulpena ere bidali zion. Tamalez, eskaerak ez zuen ondoriorik izan eta tapizaren pausaleku berria Nazio Batuen Erakundearen (ONU) egoitza nagusia izan zen³².

³² “Un tapiz realizado a partir del cuadro Guernica, de Picasso, decorará desde mañana los corredores de la sede de las Naciones Unidas (ONU), en Nueva York. El tapiz, cuya composición se desarrolló en 1955 en los talleres La Beaume-Durrbach (en Var, Francia), bajo la supervisión del propio Picasso, fue encargado por Nelson Rockefeller, antiguo gobernador del estado de Nueva York y vicepresidente de Estados Unidos, y cedido a la ONU por cinco años por la mujer de Rockefeller. Durante su carrera política Nelson Rockefeller siempre se mostró interesado por la ONU. Fue integrante de la delegación norteamericana en la Conferencia de San Francisco, en 1945, celebrada con el objetivo de crear esta organización” (*El País*, 1985-09-12). Tapiza 1985eko irailaren 13an eskegi zen Nazio Batuen Security Council Chamber delakoaren kanpoko horman, eta gaur arte egon da bertan. Ohiko lekua izan da bisitari, gonbidatu eta Ganberako kideek argazkiak-eta ateratzeko. Kontua da, iaz, 2019ko irailaren 14an Javier Alfonso Cendón Espainiako Parlamentuko diputatu sozialistak salatu egin zuela Nazio Batuen webgunean, tapizari

NBE (ONU) erakundea aipatu dugularik interesgarria da Olatz Arrieta ETBko korrespontsalak *Argia* aldizkarian eginiko elkarrizketa baten esandakoa. Izan ere, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean³³, New Yorkeko euskaldunak, NBEren egoitza nagusiaren aurrean manifestatu ziren erabaki onartezin eta bidegabe –gerora argi geratu zenez– haren kontra, euren protesta munduaren aurrean agertzeko. Beren-beregi aipatzen du Olatz Arrietak Emilia Doyagaren presentzia elkarretaratzean:

“Gutxi izanda ere, ekimen handiko dira, inola ere. Ikustekoa zen, Emilia Doyaga bat eta, NBEren egoitza aurrean, *Egunkaria* itxi zutenean... Konturatzen dira leku estrategikoan daudela. Boisen ezer egitea ondo dago, baina New Yorken egitea... askoz gehiago da. NBEren aurrean bildu zirenean, gauza handia izan zen, ze han kontzentrazioa egitea ez da batere erraza, hainbat baimen behar dira, aseguru poliza ordaindu, manifestariak ezer puskatu edo hondatzen badute antolatzaileek ordaintzeko. Lan handia da, baina mugitu ziren eta lortu zuten. Denok joan ginen egun hartan. Manifestazioa, NBEren aurrean... zazpi urte daramatzat han eta aurretik sekula ez nuen ikusi euskaldunekin zer ikusia zuen zerbaitegatik egindako manifestazioa. Huraxe, lehenengoa, nik dakidanez”³⁴.

Euskaldunen eta euskal kulturaren aldeko ibilbide luzean, Emiliak bere inguruko euskaldunen ordezkotza eraman zuen

(“Guernica” margolana) buruzko informazioan, honako hau irakur zitekeela: “an artistic protest against Republicans atrocities during the Spanish Civil War”. Eskandalua itzela izan zen, eta barkamena eskatuta, berehala zuzendu behar izan zuten delako komentario negargarri hori: “*Un error horroroso*. Así calificó Stephane Dujarric, portavoz del secretario general de la ONU, Antonio Guterres, la descripción que el organismo realizaba en una de sus páginas webs sobre el ‘Guernica’ de Pablo Picasso, un escrito en el que se refería a la obra del pintor como *una protesta artística contra las atrocidades de la República durante la Guerra Civil española*” (Iker Cortés, *DV*, 2019-09-17).

³³ 2003ko otsailaren 20an itxi zuten.

³⁴ Elustondo, Miel Anjel: “Olatz Arrieta: Atzerritar sentitzen ez naizen egunean etxera itzuli beharko dut”, *Argia*, 2005-01-16.

hainbat kongresu eta kultur forotara: North American Basque Organizations (NABO) elkartean Society of Basque Studies in America (SBSA) elkarteko ordezkaria izan zen, eta Eusko Jaur-laritzak ordezkari izendatu zuen Munduko Euskal Elkarten Kongresurako 1995ean eta 1999an, baita Ameriketako Euskal Etxeen Kongresurako ere (Buenos Aires, 1997). Era berean, Reno Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroko kolaboratzaile aktiboa izan zen Emilia urte luzetan. 2010ean, NABO elkarteak “Bizi Emankorra” saria eman zion bizitzan zehar euskaldunen eta euskal kulturaren alde, etengabe, eginiko lanagatik:

“Dr. Doyaga is currently the President and NABO representative of the Society of Basque Studies in America, an organization she founded with two other academics. She has volunteered as the NABO Delegate for more than a decade, traveling and crossing the United States to the NABO meetings which have always been held in the west. The extra effort, time and money dedicated to NABO from the eastern Basques are noteworthy. She has often been the sole voice for eastern Basques as well as those in Florida. She maintains contact with Basques from all NABO clubs and has traveled to visit more than half of the clubs over the years”³⁵.

Society of Basque Studies in America

XX. mendeko 60ko hamarkadan hausnarketa garrantzitsu bat zabaltzen da AEBetako euskaldunen artean, euskal zentroen eta euskal komunitateen euren etorkizunari buruz. Izan ere, aldaketa handiak bizi behar izan dituzte euskaldunek Ameriketara, eta lehenengo belaunaldiak zituen kezkak, gabeziak, beharrianak, ametsak-eta ez dira hirugarren belaunaldiak dituen berberak. Zeharo aldatu da panorama. Ezkontza misto asko dago euskal kolektibitateetan eta bizile-

³⁵ https://nabasque.eus/bizi_emankorra.html

kuak han-hor-hemen sakabanatuta daude. Azken urteetan, Euskal Herritik AEBetara lanera, ikastera... doazen euskaldunak ere, nor bere kasa dabil. Eskenatoki berria aztertu beharra zegoen.

Egoera berria aztertzeko eta ekimen posibleak antolatu ahal izateko 1979an Gloria Castresana, Juan Mendizabal eta Emilia Doyagak "Society of Basque Studies in America" elkarteak abiatu zuten San Franciscon (Kalifornia). Urte batzuk geroago, Castresana eta Mendizabalek utzi egin zuten elkarteak, Fresnon (Kalifornia) beste fundazio bat sortzeko: "Basque American Foundation". Harrezkero, Emilia Doyagarekin batera, Anna M. Aguirre, Irene Aguirre, Jose Ramon Cengotitabengoa eta Andoni Aguirreren gidaritzan pean berantolatu zen SBSA elkarteak. Partaidetza handitzea lortu zuten, eta elkartearen hasierako asmo eta proiektuekin jarraitu zuten, gogotsu jarraitu ere: *Journal of the Society of Basque Studies in America* urtekaria (1981); International Basque Hall of Fame (1981); Musika emanaldiak AEBetan zehar, lehenengoa Valentin Aguirre tenore eta Jose Gallastegui pianojolearekin³⁶ (1984); Euskal eskultoreen erakusketa Chicagon³⁷ (1984); Euskal Artzainen Omenezko Monumentua Reno-Ne-

³⁶ "Andoni and Irene Aguirre, Emilia Doyaga, Gema and José Ramón Cengotitabengoa sponsored a tour of Basque tenor Valentín Aguirre [...], and pianist, José Gallastegui throughout the United States. They wanted to demonstrate another aspect of Basque culture that was not usually a part of Basque festival barbecue, dancing and sporting events. The classical voice and piano recitals were scheduled for Basque Centers on the west coast and for many in the audiences, this was the first opportunity they had ever had to enjoy live Basque classical music. The Boise, Idaho Euzkaldunak Inc. hosted the performance at their Center and over two hundred people attended. Three Basque artists, Basterrechea, Mendiburu, and Larrea accompanied the tour." (*The Basques of New York...*, 261-262).

³⁷ Art Institut of Chicago-n burutu zen, eta Nestor Basterretxea, Vicente Larrea eta Remigio Mendiburu izan ziren euren lanak erakutsi zituzten euskal eskultoreak.

vadan³⁸ (1989); “Euskal Trainerua” proiektua (1998)... Era berean, elkarteak harreman zuzenak izan zituen NABO elkartearekin, Renoko Unibertsitateko Euskal Ikerketen Kate-drarekin, eta baita AEBetako gainontzeko euskal elkarte eta taldeekin ere, Euskal Herriaren, euskal kulturaren eta euskaldunen inguruko ikerketak, proiektuak eta ekimenak bultzatzeko eta indartzeko.

Esan behar da, sarri gertatzen den moduan, proiektu eta ekimen sozialetan batzuen inplikazioa erabatekoa izaten dela; eta Euskal Ikerketen Erakundearen kasuan, egoitzaren helbide ofiziala eta Emiliarena berbera zirenez, Emiliaren etxeko jantokiko mahai nagusia, proiektu askoren pausaleku, laborategi eta talaia bilakatu zen. Era berean, Gloria Totoricagüenak dioskunez, Emiliaren etxeko atekak beti egon ziren zabalik New Yorkeko euskaldunentzat, baita etxe-orrazien hirira, arrazoi desberdinengatik joandakoentzat ere³⁹. Honaino helduta, ezinbestekoa da bi pertsonaren izena aipatzea “Euskal Ikerketen Elkarte Ameriketan” fundazioan funtsezko lana egin izan zuten-eta: Irene eta Andoni Aguirre senar-emazteak. Lehenengo, hogeituz elkarteko idazkari exekutiboa, eta bigarrena hamazazpi urtez, kontalari eta finantza-aholkulari orokorra. Inoiz ezer kobratu gabe. Musu truk beti⁴⁰.

³⁸ Nestor Basterretxeak irabazi zuen monumentua egiteko lehiaketa, eta 1989ko abuztuan inauguratu zen, ekitaldira AEBetako leku askotatik joandako jendetza handi ere handia bildu zelarik.

³⁹ “Vivian Zuluaga-Papp does not forget Doyaga’s advocacy and inspiration and she remarked, ‘Emily always encourages people to do great things, you know? [...] She is a very important and influential person in the university world, I know, yet she always has time to help the little guy and goes out of her way for helping Basque people’” (*The Basques of New York...*, 259).

⁴⁰ “This team dedicated their adult lives and the majority of their family life to Basque causes with the Centro Vasco-Americano, Juventud Vasca, the Basque Government-in-exile, Andrak, Euzko-Etxea of New York, the North American Basque Organizations, and the Society of Basque Studies in America” (Idem).

Euskal Ikasketen Elkarteak urtekari bat sortu zuen bere lan, ekimen eta egitasmoen berri emateko: “Journal of the Society of Basque Studies in America”. Gehien bat, kolaborazioak Estatu Batuetako, Euskal Herriko eta Hego Amerikako euskal kolektibitateetako adituenak izaten ziren; baina, mundu zabalean, euskal ikasketetan espezializaturiko kolaboratzaileen lanak ere argitaratzen zituen. Jorratutako gai nagusiak euskal kultura eta jakintzaren baitakoak izan ohi ziren: antropologia, artea, historia, literatura, hizkuntzalaritza, soziologia...; eta, neurri handi baten, argitalpena ingeles hiztuentzat zegoen pentsatuta. Emilia Doyagak hainbat artikulu argitaratu zituen *Journal* horretan. 2011. urtean, argitalpenak 30 urte betetzen dituenean, Society of Basque Studies in America elkarteak Boise Estatuko Unibertsitateko Euskal Ikasketen Programaren eskuetan utzi zuen *Journal of the Society of Basque Studies in America* urtekaria.

Elkartearen beste ekintza garrantzitsu bat “Basque Hall of Fame” izeneko sari-ezagutza izan zen, urtero banatzen zena. Dinamika horretan ere, azpimarragarria da Emilia Doyagaren partaidetza eta lana. Saria pertsona bati (bizia, zein zendua), edota talde/kolektibo bati eman zekiokkeen, betiere Ameriketako euskaldunen historia, kultura, nortasun edota ongizatearen aldeko egintzak eta ekimenak saritzeko helburuarekin. Lehenengo sariak 1981eko urriaren 11n banatu ziren Milford-en⁴¹ (Connecticut), eta sarituak Jose Antonio Agirre lehendakaria⁴², Jon Oñatibia musikaria eta Pedro Mir pilota-

⁴¹ Sari-banaketako lekuak aldatu egiten ziren, sarituen ingurura hurbildurik.

⁴² Jose Antonio Agirre lehendakaria 1941eko udazkenean heldu zen New Yorkera, frankista eta nazien atzaparretatik ihesi. Centro Vasco-Americanoko euskaldunek omenaldi berezi bat egin zioten, baita ohorezko bazkide izendatu ere. Gerora, diktadura bukatuak, ohikoa izan da lehendakariak, New York aldera hurreratuz gero, Euzko-Etxea bisitatzea.

ria izan ziren. 1988an, New Yorkeko Euzko-Etxeari eman zitzaion saria⁴³.



SBSA elkarteak, Jose Ramon Cengotitabengoari 2009ko
“Basque Hall of Fame” saria ematean⁴⁴

New York Basque International Cultural Center

The Basque International Cultural Center-en betebehar nagusia⁴⁵ euskaldunen eta ez-euskaldunen artean euskal kulturaren ezagutza, maila globalean, zabaltzea da. Bide beretik, Zentroaren helburua zerbitzuak eta aktibitateak antolatzea eta eskaintzea da, oso ezaguna ez den euskal kultura populazio zabalari ezagutarazi ahal izateko, betiere gai jakin batzuen inguruan: euskal sukaldaritza, historia, artea, hizkuntza, kirolak, musika eta dantzak, eta

⁴³ 2011ko apirilaren 9an SBSA elkarteak Argentinako FEVA (Federación de Entidades Vasco Argentinas) elkarteari eman zion “Basque Hall of Fame” saria, B. Aireseko “Laurak Bat” euskal etxean. Emiliaren seme Mark Doyagak eman zion saria FEVAko lehendakari Ricardo Basterrari. Sariak 30 edizio izan zituen, eta FEVAri emandakoa 2010. urteari dagokio. Dokumentuetan eta aipatzen den azkena da.

⁴⁴ Washington DC, 2009-11-09.

⁴⁵ BICC erakundearen lehenengo boletinari jarraitzen diogu: *Basque International Cultural Center newsletter*, 2002, Vol. 1, Issue 1. (*The Basques of New York...*, 23).

abar. Era horretara hasten da, lerrootan, behin baino gehiagotan aipatu izan dugun *The Basques of New York: a cosmopolitan experience* liburua, Gloria Totoricagüenak Emilia Doyada eta Anna M. Aguirreren laguntzarekin burutu zuena. Guk azkenerako utzi dugu, nahita utzi ere, Emiliaren bizitzan, beharbada, berak bultzatu zuen proiekturik anbiotsuena izan zen-eta.

2002ko abuztuaren 22an, Anna M. Aguirre eta Emilia Doyaga –talde zabal baten izenean– New Yorketik Santa Monica-ra (Kalifornia) doaz hegazkinean, ilusioz beterik joan ere. Helburua Frank O. Gehry arkitekto ospetsuarekin –Bilbao Guggenheim Museoa proiektatu zuena– eta haren sozio Randy Jefferson-ekin biltzea zen. Izan ere, andrazko euskal-amerikar biek proiektu kultural garrantzitsu bat zeramaten gogoan (“New York Basque International Cultural Center”), eta egoitzaren kokapena, eraikuntzaren inguruko xehetasunak eta beste hainbat kontu komentatu nahi zituzten haiekin. Ideia zen eraikin berria South Street Seaport inguruan egitea, Lower Manhattan deritzon alderdian, hau da, lehenengo Euskal Etxeak kokatu ziren ingurumarian⁴⁶. Sentimentalki oso leku aproposa zen, eta, kokapenari zegokionez, pribilegiatua eta etorkizun handikoa. Era berean, Frank O. Gerhy munduko arkitekto garrantzitsuenetako bat zen, eta holako figura handi batek New Yorkeko komunitate euskaldun txikiaren enbaxadore bi hartzea, eta euren proiektuari buruzko azalpenak eta proposamenak hari aur-

⁴⁶ “The original Basque neighborhood of Water and Cherry Streets (now the Alfred Smith housing projects), Catherine, Madison, and St. James Place, was within a few hundred yards of the property at the South Street Seaport. Should the BICC come to fruition in this area, the Basques of New York would be building their new dream almost exactly on the same grounds where thousands of Basques lived, worshipped, shopped, sang and danced nearly a century ago” (Ibidem, 30-31).

keztu ahal izatea hasiera ona zen⁴⁷. Abegitsu hartu zituen Gerhy-k euskal emakume jator biak.

Urte luzetan, bai Emilia Doyagak, bai Anna M. Aguirrek ahalegin handiak egin zituzten New Yorken eta AEBetan euskal kultura sustatzen eta zabaltzen, eta pentsatzen zuten unea zela altxor kultural eta historiko hori mundu zabalaren aurrean jartzeko. Proiektu hori buruan zutela, lanean hasi ziren newyorktar batzuen ametsa egia bihurtu zedin. Euren ustez, holako ekimen baterako Manhattan zatekeen kokagunerik aproposena, Hudson eta East ibaien arteko irla erraldoira 40 bat milioi bisitari hurbiltzen baitira urtero. Era berean, euskal artista, kreaizaile, idazle... ugari bildu ohi dira New Yorkera, etengabe, euren lanak erakustera edota euren proiektuak bideratzera. Emilia eta bere kideen ustez, mundu kreaizaile eta aberats horrek erreferente sendo bat behar zuen New Yorken, erakustoki zabal bat, talaiak garai bat... Gehry-ri aurkeztutako egitasmoa anbiziotsua zen oso: euskal enpresentzako bulegoak eta azpiegitura, nazioarte-mailako jatetxe bat, euskal taberna-ostatu klasiko bat, liburutegia, artxibategia, ikerketa-gelak, areto anitz bat (kongresuak, erakusketak, kontzertuak, literatur ekitaldiak... egiteko), bidaia agentzia bat (Euskal Herria hango euskaldunei eta amerikarrei hurbiltzeko), opari-denda bat... New Yorkeko Euzko-Etxea eta SBSA elkarteak ere bertan kokatu zitezkeen. Badirudi Annak eta Emiliak indarrez, sinesgarritasunez eta egokitasunez egin zutela euren lana⁴⁸; izan ere, Gerhy-k baiezkoa eman zien proiektuaren batzordean parte hartzeko; eta, inportanteena zena, ahal izanez gero, bera izango zela

⁴⁷ Bilbao Guggenheim Museoa diseinatu zuen arkitektoaren bulegoaren sobrietatea eta soiltasuna ikusita, harrিতuta geratu zen Emilia Doyaga. Gainera –diosku–, apaingarri bakarria hormako apal bat zen, Eusko Jaurlaritzak urtero bidaltzen zizkion oroigarriekin apainduta zegoena.

⁴⁸ “Never underestimate the power of a Basque woman, and if these two are involved, one probably should consider surrendering immediately” (Gloria Toticagüenaren hitzak dira: *The Basques of New York...*, 25).

obraren arkitekto lehena: *Niretzat erronka bat da, eta amets bat!*, esan omen zuen⁴⁹.

Elkarrizketa gertatu baino hilabete batzuk lehenago egin zen erakundearen sortze-ekitaldia, 2002ko apirilaren 28an, South Street Seaport-eko Seaman's Church Institute delakoan⁵⁰. Jendetza handia eta arlo askotakoa hurreratu zen ekitaldira –pertsone askok, joan gabe ere, babes eskaini zioten proiektuari–, eta horrek adorea eman zien proiektuaren bultzatzaileei. Proiektua erakargarria zen oso, talde bultzatzaileak sendoa, eta ondo planteatuta zeuzkaten –teorian, behintzat– diru-bilketaren inguruko xehetasunak. Lanari gogotsu ekin zioten: informazio-kartak bidali, diru-eskaerak egin, erakundearen boletinak igorri, Euskal Herrira bidaiatu eta bertako euskaldun, agintari eta erakundeekin proiektuaz berba egin... Beste aldetik, proiektua kudeatzeko jende baliotsua eta anitza zegoen. 2003ko BICCKo Zuzendaritzan arlo askotako (industria, finantzak, komunikabideak, kultura, artea...) ordezkariak ikus daitezke: Gloria Aberasturi, Anna M. Aguirre, Jorge Aguirre, Pierre Amestoy, Enrique Arana, Emilia Doyaga Luis Foncillas, Martin Fradua, Marilu Navas eta Ray Iturraspe.

⁴⁹ Lau hamakardatsu lehenago, 1959. urtearen erdialdean, Alberto Uriartek, Centro Vasco-Americanoko presidentea eta Jose Antonio Agirre lehendakariak antzeko amets batez hitz egin zuten. Uriartek egoitza duin eta zabalago baten premia larria komentatu zion lehendakariari; izan ere, Cherry Street-eko etxea itxi behar izan zutenetik leku-arazo handiak izan zituen New Yorkeko Euskal Etxeak bere aktibitate arruntak aurrera eramanez ahal izateko. Baina Agirre urrunago joan zen, eta erantzun zion oso ekintza interesgarria izango zela egoitza berri horretara euskal enpresak, bulegoak eta euskal munduarekin lotutako ekimenak eramatea. Eusko Jaurlaritzak prest egongo zela New Yorkeko delegazioko bulegoak bertara eramateko; eta, horretara, alokairuaren bidez, Jaurlaritzaren sostengua aseguratuta izango zutela. Tamalez, amets izatetik ez zen pasatu presidente-lehendakarien arteko autua.

⁵⁰ Antolatzaileek, aretoan, Nisa Goiburu margolari gipuzkoarraren (Ordizia, 1946) erakusketa antolatu zuten euskal kreatzaileen parte-hartzearen garrantzia azpimarratzeko.

Ohorezko kideen artean, aipatzekoak dira, besteak beste, Ainhoa Arteta sopranoa, Mark Kurlansky idazlea, Frank O. Gerhy arkitektoa...

Edozelan ere, kalkuluak egiten hasi zirenean, berehala konturatu ziren dirutza handi ere handia beharko zutela hori guztia aurrera eramanez ahal izateko⁵¹. Horretaz gain, bultzatzaileek lehenengo arazoekin egin zuten topo: euskaldun askok ez zuten proposamena ondo ulertu; dirutza handi bat lortzeko, euskaldun komunitateen tamaina –kasurik onenetan eretxikia zen; ekialdeko eta mendebaldeko zentroen arteko lotura ez zen behar bezain sendoa holako ekimenetarako... Baina aurrera jarraitu zuten, sinesmen osoa zuten-eta proiektu berrian.

Hamaika ahalegin egin zuten, baina arazoak metatuz joan ziren. Dorre Bikien kontrako atentatuak, eta haren ondorio urbanistikoez ere ez zuten asko lagundu proiektua bideratzeko. Gerora, Emilia Doyaga proiektuaren bultzatzaile, fundatzaile eta lehendakariak bere itzaropena agertu zuen hartutako babesagatik; baina, beste aldetik, “New York Basque International Cultural Center” eraikitzeko bidea –finantzazioa, batik bat– uste izan zutena baino malkartsuagoa eta luzeagoa izango zela onartu behar izan zuen. Hala eta guzti ere, *Zergertatuko da proiektuak porrot egiten badu?* itaunaren aurrean, Emilia Doyagaren erantzuna ziurtasun eta itzaropenez beterikoa izan zen: *Baten batek heldu beharko dio berriro. Kosta ahala kosta, egin beharrekoa da-eta*⁵².

Izan ere, erronka berriak zituen (dauzka) euskal diasporak, eta Emiliak ere bere egiten zituen euskal-komunitate txikien inguruan planteatzen ziren kezkek, ezbaiak, argi-ilunak, gal-

⁵¹ Presupuestoa 20 milioi dolar ingurukoa ei zen, eta 2005ean zabaltzeko asmoa zeukaten (<http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/en/artikulu/26969/>).

⁵² *The Basques of New York...*, 34.

derak...: Nola iraun euskaldun Euskal Herritik aparte? Zelan ulertu euskalduntasuna beste errealitate sozio-kulturaletan? Nola indartu euskaldunen eragina, euskal kulturaren presentzia eta euskal komunitateen arteko loturak atzerrietan eta globalizazioaren zurrumbiloan?...⁵³.

Newyorktar euskaldunak umezurtz

2020ko otsailaren 12an utzi gintuen Emily Doyaga newyorktarrak, Emilia Sarriugarte Renteria berriztar/bakioztarrak, 94 urte zituela, New Yorkeko euskaldunak umezurtz gelditzen zirelarik. Hutsune handi ere handia utzita joan da Brooklyn-en jaiotako euskalduna. Bizitza oso bat euskalduntasunaren *–basqueness–* sustrai zahar eta kimu berriei eskainia. Water Street, Hamilton Street, Catherine Street, Cherry Street, Madison Street, East Broadway Street, Eckford Street... kaleek newyorktar euskaldunen pausuen oihartzuna gordetzen dute oraindik. Oihartzun mehe-mehea, gura bada, baina presente dagoena kale-espaloï-hormetan apur bat arakatuz gero. Polita litzateke, Emiliaren omenez, kultura-zirkuito halako bat antolatzea, oraingo newyorktarrek eta bertara hurreratzen diren euskaldunek euren aurrekoen historia txiki-handia ezagutu eta bizi ahal izan dezaten. Eta zirkuitoa South Street Seaport-en amaituko balitz, aukera izango lukete ezagutzeko Ameriketara jaiotako euskaldun batzuek, behinola, amestu izan zuten proiektu hura. Belaunaldi berriek jasoko ahal dute Emiliaren lekukoa! Katea ez da etengo: “Jaioko dira berriak/ gu gara Euskal Herriak”.

Hil-kanpaiak berriro New Yorken

Emilia Doyagaren omenezko artikulu hau amaitu berri dugula, arreba Garbiñeren e-maila ordenagailuan. Albiste triste bat. Berriro hil-kanpaiak New York aldetik: “2020/05/08,

⁵³ Horretaz guztiaz, interesgarria da Gloria Totoricagüenaren: *Diáspora Comparada Vasca* ikerketa-lana, haren doktorego-tesian oinarrituta dagoena.

22:06. *Anna Maria Aguirre Renteria hil da NYen. Bakioko bere lehengusina batek esan dit. Emily Sarriugarteren laguna eta senidea zen (amaren aldetik) G. B.*”. Zirrara halako batek astindu nau berehala. Izan ere, Annaren figurak eta haren aportazioek beratu egiten dute, etengabe beratu ere, irakurleak esku artean izan duen artikulua. Txarto kontatu ez badi-tut, uste dut hamahiru alditan agertzen dela aipatuta testu-bibliografietan zehar: idazle modura bi argitalpen nagusitan, New Yorkeko Euzko-Etxearen eta euskaldunen inguruko eki-menetan...; eta, batez ere, Emiliarekin batera, “Euskal Ikaske-ten Elkarte Amerikan” (SBSA) eta “Euskal Kulturaren Na-zioarteko Zentroa” (BICC) proiektuetan.



Anna M. Aguirre

Lanbideari dagokionez, Anna aditua zen nazioarteko finantza- eta banka-arloan. Ardura garrantzitsuak izan zituen bere ibilbide profesionalean, eta munduko finantzen gune nagusian, New Yorken bertan, Deutsche Bank-eko *Assistant Vice President* izan zen.

“Zuretik ezpala” esaten da euskaraz, eta horretan bazeukan Anna jatorrak nortara urten, bere gurasoak Irene Renteria eta Andoni Aguirre ere euskaldun zinez engaiatuak, langile porrokatuak eta pertsona benetan eskuzabalak izan ziren-eta euskaldunen aldeko ekimen eta proiektuetan. Haiei opetsi zien Koldo San Sebastianekin batera, 2018an, argitaratu zuen *Newyorktarrak. Origen de la comunidad Vasca de Nueva York, 1880-1955* liburua: “To my parents Irene Rentería and Andoni Aguirre/ who instilled in me a love for my Basque heritage./ Anna M. Aguirre”.

Annaren izeko txikia⁵⁴, Emilia Doyaga, hil zela hiru hilabete eskasetara, 2020ko maiatzaren 8an, utzi gintuen Annak, 69 urte zituela. New Yorkeko euskaldunen bi belaunalditako ordezkari apartak, biak ahala biak. Agur eta ohore zuei!

Bibliografia

- AGUIRRE, Anna M. / SAN SEBASTIAN, Koldo: *Newyorktarrak. Origen de la comunidad Vasca de Nueva York, 1880-1955*, Urazandi 30, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, Gasteiz, 2018.
- ARGIA: “New York´eko Euskaldunak”, *Argia* (New York), 8, 1947, 6-7 (<https://urazandidigital.euskaletxeak.eus>)⁵⁵.
- BEQUER, G. Adolfo: *Seis leyendas y algunas rimas*, Emilia Doyada/Laurence H. Klibbe (argit.), Washington Irving Publishing Co., Newark-New Jersey, 1968, 210 pp.

⁵⁴ Lan honetako lehenengo argazkian ikus daitezke Emilia eta Annaren ama Irene eskutik helduta.

⁵⁵ Artikulua sinadurarik gabe agertzen da, baina Jon Oñatibiarena izan litekeelakoa daukagu.

- *BERRIA*: “Emilia Sarriugarte hil da, AEBetako euskal diasporaren bultzatzailea”, *Berria*, 2020-02-14 (<http://www.berria.eus/albisteak>).
- DOUGLASS, William A.: “ Basque Immigration in the United States”, *BOGA: Basque Studies Consortium Journal*, Vol.1: Iss. 1, Article 5 (<http://scholarworks.boisestate.edu/boga/vol1/iss1/5>).
- DOYAGA, Emilia: *La Mujer en Los Ensayos de Unamuno*, New York University, Graduate School of Arts and Science, 1967, 690 pp. Doktorego Tesia.
- -----: *Unamuno y la mujer*, Washington Irving Publishing Co., Newark-New Jersey, 1969, 232 pp.
- -----: “Unamuno ante la belleza femenina”, *Cuadernos Hispano-americanos*, 229, 1969, 178-184.
- -----: “Basque influence on Unamuno’s concept of woman”, *Journal of the SBSA*, 1, 1980, 11-18.
- -----: “History of Euzko-Etxea of New York”, *Journal of the SBSA*, 4, 1983, 71-80.
- -----: “History of Euzko Etxea of New York”, in *First International Basque Conference in North America*, Society of Basque Studies in America, California State University-Fresno / LGEV-Bilbao, 1985, 131-141.
- -----: “Columbus and the Mysterious Pilot: Basques in the Discovery of the New World”, *Journal of the SBSA*, Special 10th Anniversary Issue, 10, 1990, 1-13.
- -----: “The Society’s 1998 Trainera Project”, *Journal of the SBSA*, 18, 1998, 1-5.
- -----: “Mark Kurlansky’s *A Basque History of the World*”, *Journal of the SBSA*, 20, 2000, 102-104.
- *EUSKALKULTURA.EUS*: “Emilia Sarriugarte Doyaga euskal amerikar ekile euskaltzale engaiatua atzo hil zen New Yorken, 94 urte zituela”, 2020-02-13 (<https://www.euskalkultura.eus/euskara/albisteak>).
- OÑATIBIA, Yon: *Neke ta poz: erbesterratu baten oroitzapenak*, Edili, Donostia, 1983,

- SARRIUGARTE, Unai: “Emilia Doyaga Sarriugarte zendu da, euskal diasporak Estatu Batuetan sekula izan duen erreferenterik garrantzitsuenetarikoa”, *El Correo*, 2020-02-18 (<https://www.elcorreo.com/zurekin>).
- TOTORICAGÜENA, Gloria: *Diáspora Comparada Vasca*, (Itzulpena: Haritz Monreal), Urazandi 1, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, Gasteiz, 2003.
- TOTORICAGÜENA, Gloria (with the collaboration of Emilia Sarriugarte Doyaga and Anna M. Renteria Aguirre): *The Basques of New York: a cosmopolitan experience*, Urazandi 12, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, Gasteiz, 2003.
- UNAMUNO, Miguel: *Solitaña*, Pablo Bilbao/Emilia Doyaga (argit.), Washington Irving Publishing Co., Newark-New Jersey, 1970, 65 pp.

*Galdakaon, 2020ko maiatzaren 8an⁵⁶
Iñaki Sarriugarte Irigoien*

⁵⁶ Anna M. Aguirre eta Emilia Doyada ortziko izartegian berriro elkartu zireneko egunean.